Goizuetako folkloreaz
Bertako hizkeran

Patziku Perurena

Saio eta Testigantza, 266

978-84-9172-405-6

2024 - 336 or. - 17 x 24 cm

24,00 €

Bai. Folkloraren iraultza ttipia duzu liburu erren hau. Zer den benetako folklorekeria? Dagoeneko ez da erraza bereizten, baina, liburu hau horren saiakera duzu.

Behin hala leitu omen zion Patzikuk Antonio Machado poeta haundiari: «*en nuestra literatura, todo lo que no es folklore, es pedantería*». Amodio librea Parisen aurkitu zuten gure abertzale gazteek, ordea, jelkide zaharrei leporatzen zien bekatua: folklorekeria eta pedantekeria hutsa zela haieena.

Orain dela gutxi berriz, hala zioen Erlea aldizkarian Joseba Tapia trikitrilariak: «*Zinezko folka, folklorizatu gabeko folka, egiten zuten gure aurrekoek, larre motxeko haiek. Orain, nola esan… merkatuak, abertzaletasunak, etnosalmentak asimilatu egin dute trikitixa, erdaldunek asmaturiko "triki-" hitz berriari zernahi erantsi eta herrigintzan gabiltzalakoan*».

Tapiak trikitixaz esaten duenak, ez dakit erremediorik baduen denerako, baina, egia fin samar esateak, gutxi gehiago, min ematen baitu beti, eta minak nola edo hala erremedioa bilatzen.

Bai, liburu honetxetan dituzu Patzikuren azken min klase askoren urrezko izpi batzuk. Murgil hondarpean eta goza, Pello Lizarraldek behiala esana gogoan: «*Herri ttipien galeran, nostalgia izugarri gailendu baita, eta zinezko soluziorik ez da ematen ezertan. Dena modu sinbolikoan, folklorikoan…*».

Patziku Perurena

Goizuetako Aitasemegi auzoko bordari giroan jaio zen 1959an, baina Leitzako Amazabal kalean bizi da hamabi urte zituenetik. Hala ere, sekulan ez omen du galdu, bere izate guzia zor omen dion bordari giroko eskola estzeptiko hura. Esku artean duzun liburu hauxe lekuko, eta ondotik etorriko direnak. Baina lehendik onduak ere baditu.

Hamaika artikulu, iritzi eta kontu bixiren artean, hona saiorik ezagunenak: *Harripilatan ezkutatzen zeneko apo tipiaren burutazioak* (1990), *Koloreak euskal usarioan* (1992), *Euskarak sorgindutako numeroak* (1993), *Leitzako errege erreginak* (1996), *Trapuan pupua* (2001), *Harrizko pareta erdiurratuak* (2004), *Dakiguna ikasten* (2007), *Goizuetan bada gizon bat* (2010), *Goizuetako etxeen izenak* (2011), *Hilen xarma* (2015), *Goizuetako dokumentu zaharrak (1324-1918)* (2017), *Leitzalarreko Unaiak* (1683-1771), *Zezenak plazan, Goizuetan eta Leitzan (1578-2017)* (2018), *Bordarien sorrera eta bilakaera Leitzan eta Areson (1427-1925)* (2019), *Leitzako bordak, sorreran (1557-1965)* (2020).

PAMIELA
argitaletxea

948 326 535 • www.pamiela.com • soltxate@pamiela.com